

EUDEL-IVAP 2015-2016 PROGRAMA BERRIA

Prestakuntza eta akonpainamendua **IZAPIDEEN** **ESKULIBURUA** egiteko



EUDELe eta IVAPek elkarlanean jarraitzen dute EAeko udalak etengabe berritzeko eta modernizatzeko, eta, horretarako, programa berri bat daukate 2015-2016 ikasterterako; programa horren helburu nagusia izapideen eskuliburuak egitea da.

Programaren barruan, prestakuntza-jarduerak eta akonpainamendu-jarduerak daude, aurrez aurre egitekoak eta on line egitekoak. Jarduera horiek bereziki diseinatu dira udalei laguntza pertsonalizatua emateko- nahi izanez gero-, nork bere Izapideen Eskuliburua egin dezan.

Haxe da prozesuaren azken helburua: hitzartutako aldia amaitu ondoren, hots, sei hilabetera, parte hartzen duten udalek berrikusita, arrazionalizatuta eta sinplifikatuta izan ditzatela administrazio-izapideak eta idatzita izan ditzatela beren izapideen eskuliburuak.

Programa honen bigarren edizioa da oraingoa. Aurrekoan, 10 udalek parte hartu zuten. Edizio honetan, prozesua eginda daukaten eta Izapideen Eskuliburua daukaten udalek beren esperientziaren berri emango dute.

Parte hartu duten udalerrietan gauzatu diren prozeduren balantzea positiboa da. Horregatik, berriz ere eskaintzen zaie programan parte hartu nahi duten udalerrri guztiei.

Planaren fitxa

- **Abian jartzea:** 2015eko urria
- **Garapena eta jarraipena:** 6 hilabete
- **Gainbegiratzea eta koordinazioa:** EUDEL-IVAP
- **Matrikularen prezioa:** 500€
- **Helburua:** Arduradun politiko eta teknikoei babesa eta laguntza ematea udalaren Izapideen Eskuliburu bat diseinatzeko, garatzeko eta ezartzeko. Prozesuaren ebaluazioa.
- **Metodologia:** Udalek Tokiko Berrikuntza Agenden esparruan prestatutako metodologiarekin lan egingo dute:
 - [Administrazio Prozeduren Eskuliburu bat egiteko Gidaliburua](#)
 - [Administrazio Prozeduren Eskuliburu bat egiteko Dekalogoia](#)
- **Emaitzak:** **Izapideen Eskuliburua egitea eta ezartzea** programan parte hartzen duten udalengan.

- ✓ **Prestakuntza**, arduradun politiko eta teknikoentzat: Tokiko Berrikuntza Agenden esparruan prestatutako metodologiaren bidez.
- ✓ **Aholkularitza**, udal bakoitzean prozesua abiarazteko eta antolatzeko: lantaldea eratzeko, prozesuaren kronograma, benchmarkin-a, tresnak diseinatzea, eta izapideak eta dokumentu lagungarriak berrikustea, arrazionalizatzeko eta sinplifikatzeko.
- ✓ **Akonpainamendua**, jarraipena eginez eta laguntza pertsonalizatua emanez, zerbitzua diseinatzen denetik osatzen den arte.
- ✓ **Prozesuaren ebaluazioa**: ebaluazio-inkesta, emaitzen txostena, ikuskapen-saioa.

2 Zer egin behar da parte hartzeko?

MATRIKULA ETA ATXIKIMENDU-KONPROMISOAK → Parte hartzeko, beharrezkoa da 500€ ordaintzea –matrikual-kontzeptuagatik-, eta udal bakoitzak planera atxikitze protokolo bat sinatzea. Protokolo horretan, konpromiso hauek jasotzen dira, besteak beste:

- **Gobernu-organoak erabaki bat hartzea.**
- Prozesuaren **arduradun politiko bat izendatzea** (alkate eta zinegotzi ordezkaria).
- Gutxienez **HIRU** enplegatu publiko izendatzea, prozesuaren **arduradun teknikoak** izan daitezen.
- Arduradun politikoari eta arduradun teknikoari laguntza eta erraztasunak ematea prestakuntza- eta tutoretza-planeko on line jardueretan eta aurrez aurrekoetan **parte hartzeko**.
- Planean ezartzen diren **zereginak garatzen eta gauzatzen laguntzea**; besteak beste, prozedurak arrazionalizatzen eta sinplifikatzen.

Eskaera urriaren 20a baino lehen → Programan parte hartu nahi duten udalek urriaren 20a baino lehen eskatu beharko dute, posta elektronikoko hauen bitartez:

EUDEL; arduraduna, Esther Ibarluzea: ibarluzea.e@eudel.net

IVAP; arduraduna, Miriam Berasategi: miriam-berasategi@ivap.eus

****Eskabideak sartzen diren hurrenkerari zorrotz jarraituz aztertuko dira.**